

# NAIA BASERRIA

## 1. BALIO PROPOSAMENA

Beharrak askotarikoak dira, bakoitzak behar desberdinak izango ditu eta gu saiatuko gara behar horiek guztiak asetzen. Gurasoentzat kezka bat izan daiteke, esate baterako, behar bereziko umeak bakarrik uztea denbora luzez, honek beldurra eragin dezake haiengan. Ildo beretik, kezkatuko die baserri-eskolak umeen premia guztiak beteko dituen edo haien segurtasuna bermatuko ote duen. Beste alde batetik, ere sartzen dira kezken multzoan ume taldearen artean integrazio- edo diskriminazio-arazoak sortzea.

Lehiakideak gehiago aztertuz, esan dezakegu guk aukeratutako ingurunean sektorearekin lotutako ekintzak daudela baina ez zehazki guk eskainitako zerbitzua, esate baterako, hipika eskolaren bat dago baita animaliekin eta naturarekin harremanetan jartzeko zentroak ere.



Baserri Naia beste baserri eskolak ez duten ezaugarri bat du, hara nola, instalazioak egokituta daude behar bereziko pertsonentzat, gainera gure begiralek ezin hobekak dira pertsona hauekin egoteko eta haien beharrak asetzeko. Horretaz gain, naturako gauza berriak ezagutu eta animaliekin kontaktuak egongo dira, pertsona berriak ere ezagutuko dituzte.

AMAIA RIVACOB  
ARIANE PEREZ DE NANCLARES  
NEREA MONTERROSO  
IRANTZU SANTAMARIA